

gaurko filmak

Marie-Chantal contre le ...

Zuz.: Claude Chabrol. 110m. Fran. 1965. **09:15 C+(f)**

La trompette magique

Zuz.: Richard Rich, Terry L. Noos. 2001. **11:05 C+(f)**

El triunfo de una estrella

Zuz.: Nell Scovell. 91m. AEB. 1999. **15:30 A3**

Tres fugitivos

Zuz.: Francis Veber. 92m. AEB. 1989. **15:30 T5**

Boina roja

Zuz.: David Richards. 88m. 2001. **15:45 ETB2**

El novio de mi madre

Zuz.: James Orr. 92m. AEB. 1995. **16:00 TVE1**

Mientras la justicia duerme

Zuz.: Alan Smithee. 120m. 1994. **17:35 ETB2**

Su única coartada

Zuz.: Andy Wolk. 87m. AEB. 1997. **18:00 A3**

Echame la culpa

Zuz.: Fernando Cortes. 91m. 1958. **18:10 TVE1**

Buscando a Susan ...

Zuz.: Susan Seidelman. 99m. AEB. 1985. **21:25 La2**

Sin escrúpulos

Zuz.: Charles Winkler. 84m. AEB. 2000. **22:30 C+(e)**

Los fisgones

Zuz.: Phil Alden Robinson. AEB. 1992. **23:30 La2**

Ally

Zuz.: John B. Root. 90m. Fran. 2002. **00:15 C+(f)**

La novia de luto

Zuz.: Peter Edwards. 94m. EB. 1994. **01:00 T5**

Citizen X

Zuz.: Chris Gerolmo. 105m. AEB. 1995. **02:45 A3**

Colpo di luna

Zuz.: Alberto Simone. 88m. 1995. **03:15 ETB2**

●	★	★★	★★★	★★★★
Txarra	Eskasa	Balekoa	Oña	Bikaina

MARIE-CHANTAL CONTRE LE DOCTEUR KHA

★★ C+(f) - 09:15

Zuz.: Claude Chabrol. Akt.: Marie Laforet, Francisco Rabal. 115 min. Fran. 1965.

Marie Laforet abeslariak protagonizatutako abenturazko film hau Espainiak Italia eta Frantziarekin ekoitzi zuen, zuzendaritzaren ardura Chabrol prestigiotsuaren esku utziz. Bide batez esango dut ez dela zinemagile interesgarri horren lan nabarmenetakoa. Tren batean garatzen den intrigazko istorioan, hainbat pertsonaiak balio handiko bitxi bat gora eta behera darabilte. Zertxobait zaharkitua geratu bada ere,



Rosanna Arquette eta Madonna.

80ko hamarkadako Madonnaren miresle nostalgikoentzat

BUSCANDO A SUSAN DESESPERADAMENTE

★★ La 2 - 21:25

Zuz.: Susan Seidelman. Akt.: Rosanna Arquette, Madonna. 99m. AEB. 1985

Madonna abeslariak eta Rosanna Arquette aktoreak bikote erakargarria osatzen dute Susan Seidelmanek zuzendutako komedia arin eta entretenigarri honetan. 80ko hamarkadaren erdialdean estreinatu zenean arrakasta handia lortu zuen, nagusiki orduan modan zegoen Madonna pop abeslaria aktore protagonista gisa aurkeztu izanagatik, eta, egun ere, bereziki nostalgikoek gustura ikusiko dutela badakit. Hala ere, estetikoki zaharkitu samarra geratu da, beste elementuen artean nahikoa horte-roak baitira bi protagoniston jantziak. John Turturro, Coen anaia independenteen aktore kutunak rol laburra antzezten du bi protagonista eroen alboan.

oraindik interesgarria gerta daiteke.

TRES FUGITIVOS

★ T5 - 15:30

Zuz.: Francis Veber. Akt.: Nick Nolte, Martin Short. 92min. AEB. 1989.

Nick Nolte interesgarriak protagonizatzen duen akziozko komedia hau inozo samarra bada ere, bazka-

londo entretenigarria igerotzeko aproposa da, erraza baita eta atsegina, batik bat, aipatu aktorearen partaidetza erakargarriar esker. Lapurtzeagatik zenbait urtez kartzelan egon den gizon azkar bat beste batek eragindako lapurretaren lekuko izango da, orain.

MIENTRAS LA JUSTICIA DUERME

★ ETB2 - 17:35

Zuz.: Alan Smithee. Akt.: Cybill Shepherd, Tim Matheson. 120 min. 1994.

Topikoz jositako zinta honek ezustekorik gabeko istorio arrunta erakusten du. Cybill Sheperd ilehoriak rol nagusia antzezten du; Luz de Luna telesail arrakastatsuan Bruce Willisekin batera aritu zen aktorea da. Zuzendaria nor den, ordea, ez dakigu, izan ere, Hollywood aldean filmaren emaitzarekin ados ez daudenean Smithee ezizena erabili ohi baitute, askotan.

LOS FISGONES

★ La 2 - 23:30

Zuz.: Phil Alden Robinson. Akt.: Robert Redford, Dan Aykroyd. 119 min. AEB. 1992.

Gauerako iragarri duten intrigazko drama honen erakargarritasun bakarra aktore taldea da. Robert Redford, Dan Aykroyd eta Ben Kingsley hiruokete garestia pertsonaia garrantzitsuen roletan topatuko duzue, informatikaren munduan girotutako abentura arrunt honetan.

CITIZEN X

★★ A3 - 02:45

Zuz.: Chris Gerolmo. Akt.: Stephen Rea, Donald Sutherland. 105 min. AEB. 1995.

Chris Gerolmok zuzenean telebistan igortzeko sortu zuen hau, gertakari erreal batean oinarritutako thriller psikologiko zuzen eta interesgarria da, Stephen Reak (*The Crying Game*), Max Von Sydow handiak eta Donald Sutherlandek ederki antzeztua eta, besteak beste, txukun girotua. Hiltzaile errusiar baten ekintza basatiak bererraikitzen ditu.

irratia



RADIO EUSKADI. IUko koordinatzaile nagusi Gaspar Llamazares elkarrizketatuko dute gaur goizean *Más que palabras* irratsaioan. Bestalde, tertulia politikoa egongo da honako gonbidatuekin: Jose Antonio Rubalcaba (EAJ), Leopoldo Barreda (PP), Rodolfo Ares (PSE-EE) eta Kontxi Bilbao (IU-EB). Erretzeari uzteko metodo ezberdinen inguruan hitz egingo dute ondoren. Eta Luis Laria biologoak txipiroi erraldoi baten berri emango du. Arratsaldeko 16:00etan, *La montaña mágica* saioan, Juan Ramon Llavorik Tibeti buruz jarri duen erakusketaren berri emango dute. *Pedazos de celuloide* atalean Billy Wilder

zinemagileaz hitz egingo dute. *Mar de fueguitos* irratsaioan, bestalde, Boli Kostako gatazka armatua aztertuko dute (18:00etan). Ondoren, *Anbotoko damak* saioan, Adolfo Madinabeitia eta Juan Miranda eskalatzaile gasteiztarrek elkarrizketatuko dituzte. 20:30ean *Kirolaldia* kirol saioa hasiko da eta bertan Recreativo-Athletic partida zuzenean eskainiko dute. Gauerdian eduki politikoko abestiak izango dira protagonista *La jungla sonora* programan, kanta batzuk besteekin lotuz. Eta goizaldeko *La otra dimensión* saioan, Jesus Ynfante kazetariak Jose Maria Escriba de Balaguerretaz hitz egingo du.

ETB-1	TVE1
07:05: N.G. Mayday! itsasoan galdurik. Dokumentala. 07:55: Berlinen aldeko borroka. Dokumentala. 08:35: Betizu. Alex eta Alexis. Sophieren bihurrikeriak. Elvis Jones txiki eta kamiozaleak. Shin Chan. Zero hiru patrulla. Donkey Kong eta bere herrialdea. Fantomette. 12:00: Hau komeria. 12:25: Ikusgela. 13:00: Elkartasunaren bideak. Nicaragua. 13:30: Sustraia. 14:00: Gaur Egun. Albistegia. 14:45: Sautrela. Literatura saioa Hasier Etxeberriaren eskutik. 15:15: Betizu. Shin Chan. Doraemon, katu kosmikoa. 16:00: Planeta junior ordua. 16:55: Kirolez kirol. 17:00 Herri kirolak. 18:25 Futbola 2.maila. Las Palmas - Oviedo. 20:28 Albisteak. 20:35 Bilboko herri kirol jaialdia. 20:50 Futbol atarikoa. 21:25 Futbola: Recreativo - Athletic. 23:45 Zesta: munduko txapelketa. 01:00: Eclipse@. 02:30: Bexamela. 04:00: Esanak esan. 04:30: Euskal herritik. 05:05: 1 bitan. 06:05: Amama sukaldari. 06:15: Ikusgela.	06:00: Canal 24 horas. Albistegia. 08:00: TPH club. Flipper y lopaka. Casper. Narigota. La momia. 10:05: La hora de Warner El laboratorio de Dexter. Looney Tunes. Supernenas. 11:10: Musica si. Musika saioa. 13:50: Cartelera. Jose Toledok aurkeztutako zinemako azken estrenei buruzko saioa. 14:30: Corazon, corazon. Cristina Garcia Ramosek aurkeztutako magazina. 15:00: Telediarrio-1. Albistegia. 15:55: Eguraldia. 16:05: Zinema. El novio de mi madre Zuz.: James Orr. Akt.: Chevy Chase, Farrath Fawcett. 1995. 18:10: Cine de barrio. Echame la culpa Zuz.: Fernando Cortes. Akt.: Lola Flores, Miguel Aceves Mejia. 21:00: Telediarrio 2. Albistegia. 21:45: Eguraldia. 21:50: Informe semanal. Baltasar Magrok aurkeztutako saioa. 23:00: Noche de Fiesta. Aurkezleak: Daniel Muriel, Juncal Rivero, M^º Jose Suarez, Silvia Gambino, Alfredo Cernuda. 03:00: Canal 24 horas.
ETB-2	A3
07:25: Una aventura muy personal. 08:20: Aldea global. <i>A traves de Mexico.</i> 08:45: Alquila2. 09:10: Campus. 10:00: La guerra civil en Euskadi. 11:00: Travel notes. 11:55: Oinak izarretan. 12:35: Pacific blue. 13:30: Que pasa pues. 14:05: Zoombados. 14:58: Teleberri. Albistegia. 15:45: Zinema. Boina roja Zuz.:David Richards. Akt.: Tamzin Outhwaite. 2001. 17:35: Zinema. Mientras la justicia duerme Zuz.: Alan Smithee. Akt.: Cybill Shepherd, Tim Matheson. 1994. 19:20: Sheena. 20:05: Tequila y Bonetti. 20:58: Teleberri. Albistegia. 21:45: Telefilma. En nombre del amor Zuz.: Ferdinand Fairfax. Akt.: Tara Fitzgerald. 1999. 00:40: Donostiako Zinemaldia. 01:35: Mas alla del limite. 03:15: Zinema. Colpo di luna Zuz.: Alberto Simone. Akt.: Tcheky Karyo, Nino Manfredi. 1995. 05:35: Pista de baile. 06:30: Date el bote. 07:25: Recetas de la abuela.	07:00: B.A.D. Telesaila. 07:30: Club Megatrix. Power Ranges. Guardianes. Campeones hacia el mundial. Kumba. Beyblade. Detective Conan. Padrinos magicos. Yughi Oh. El regreso de Spiderman. Bola de dragon Z. 12:30: A fondo. 13:00: Sabrina. 14:00: Los Simpson. 15:00: Noticias fin de semana. 15:30: Zinema. El triunfo de una estrella Zuz.: Nell Scovell. Akt.: Behany Richards. 1999. 18:00: Zinema. Su unica coartada Zuz.: Andy Wolk. Akt.: Tori Spelling, Jason Brooks. 1997. 20:00: Ahora. 21:00: Noticias fin de semana. Albistegia. 21:30: La batidora. 22:15: Trato hecho. 01:45: Centimetros cubicos. 02:15: 100% cinemaspop. 02:45: Zinema. Citizen X Zuz.: Chris Gerolmo. Akt.: Stephen Rea. 1995. 04:30: Televenta.